

ANWAR PRESSBOOK

LOGLINE

Alex Txikonen neguko igoera Manaslura, Sierra Leonako herri batera argi garbia eramaten amaituko da, Newton izenekoa.

Baita Eskola oso berezi batera Diamerrenera ere, Pakistanen. Mendizaletasuna, elkartasuna eta energia berriztagarriak dira historio honen giltzak.

SINOPSISIA

Mundu osoan ezaguna den Alex Txikon mendizalea, beste neguko espedizio bat egitera abiatu da Manaslu mendira (Nepal) 2021ean. Kutsatu gabeko lehenengo espedizioa da, eguzki panelekin bultzatua. Sistema jasangarri honekin, Pariseko akordioa errespetatzen dute, marka energetikoa txikitzen. Honekin lan solidario bat hasi da, EKI fundazioaren laguntzarekin. Alexek fundazio honekin Sierran Leonan egingo duen lana ezagutuko du, han eguzki energiari esker, elektrizitatea emanen diote, eta onekin eskolan eta medikuan argia izanen dute. Txikonen proposamena beretzat oso berezia den Günter Mountain School, Diamerren haranean, Pakistanen gauza berdina egitea da. Eta honekin, bi kultur oso desberdinak baina era berean berdinak elkartuko ditu.

FILMAKETA ETA EKOIZPENA

Nepalen, Sierra Leonan eta Pakistanen filmatua, ANWARen (argiz betea), Alex Txikonek neguko espediziora Manaslun eta beranduago parte izaten duten beste gertaera solidarioak bizitzera gonbidatzen gaitu.

Rosa García Loireren partez zuzendua eta idatzia, ANWAR (argiz betea) modu ia ia lineal batean kontatuta dago, hiru jardun oso desberdinetan zatitua. Alex guidoi hibrido baten lotura da, alde batetik mendiko dokumental bat da, eta bestetik bitakorako kuaderno bat. Gizakiaren inguruan dabilen filma da. Ignacio Maquirrian eta Raul de la Fuente argazkigintzaren zuzendariak dira eta Natxo Leuza muntaia egiten du. Doinuaren diseinua Miguel Hualdek egiten du. Musika eta diseinu grafikoa, Audionetwork eta Welldoneren partez izanen da. Ignacio Galíndez produkzio zuzendaria bezala eta Juan San Martín ekoizle exekutiboa. Filma honek EKI fundazioaren parte artzearekin egin da.

FITXA ARTISTIKO/ TEKNIKOA

- Zuzendaria: Rosa Garcia Loire
- Gidoia: Rosa Garcia Loire
- Argazki Zuzendaritza: Ignacio Maquirrian eta Raul de la fuente
- Muntaia: Natxo Leuza
- Soinu diseinua: Miguel Hualde
- Musika: Audionetwork
- Diseinu Grafikoa: Welldone
- Ekoizpen zuzendaritza: Ignacio Galíndez
- Ekoizpen exekutiboa: Juan San Martín
- Parte artzaile: Alex Txikon

DATU TEKNIKOAK

- Generoa: Luze dokumentala
- iraupena: 80 min
- Jatorrizko hizkuntza: Gastelania, Euskera
- Bigarren hizkuntza: Ingelera, Frantsesa, pakistaniarra.
- Urtea: 2022
- Soinua: 5.1
- erakusketarako formatua: 2k
- kokapenak: Nepal, Sierra Leona, Pakistan

ALEX TXIKONEN OHARRA

“Proiektu honek ekintza on batetik jaiotzen da. Nepalera joan behar ginenean pentsatu nuen agian EKI fundazioaren eskutik instalazio bat montatu ahalko genukeela eta ondoren, zergatik ez, Pakistanen berdina egin. Herria asko eman zigun Nanga Parbaten ondoren 2016ean. Orduan, Jose Galindezi deitu eta erran nion, ¿zergatik ez dugu oni buruzko filma bat egiten gendeak ikusteko? Modu honetaz eta EVEren (Ente Vasco de Energia) laguntzarekin gutxinaka aurrerantz joaten hasi ginen.

Gauzarik politena, documental honek pandemia egoera bitartean egina dagoela da. Honek bidaiatzea zailagoa izatea egin du Sierra Leonera, Pakistanera eta Nepalera joateko.

Baita ere balio humanitarioak azpimaratu nahi ditut, eta uste dut ikusleak ikusi ahalko duela ze gaizki banatuta dagoen lurra. Asiako ze lurraldean jaiotzen zaren arabera, bizitza ona izateko aukerarik gabe haziko zara, gauza berdina gertatzen da Afrikan. Ikusleak pentsatu, enpatizatu eta islatu ahalko du haur hauen oportunitate faltari buruz. “

Alex Txikon

ALEX TXIKON

Alex Txikon, Bizkaiako mendizalea, Lemoan jaioa 1981eko neguan. 30 espediziotan parte hartu du eta hamalau zortzimiletako 11 tontorrera iritsi da. Shishapagma bi aldiz higo du. Bere indarrak negu himalayako expedizioetan fokua jarri du. Izan ere, munduko mendizale bakarra da igoera hauek egiten etenik gabe 2011 urtetik. Bere igoera gogoratuena da 2016 urtean lortu zuena Ali Sadpara Pakistaniarrarekin eta Simone Moro italiarrarekin Nanga Parbat (8.126m) igotzen neguko demboraldian. Honen ondoren, neguko saiakerak egin ditu Everesten 2017, 2018 eta 2020 urtetan eta K2era 2019an.

Igoerako kamara izan da “al filo de lo imposible” filmarako RTVEen. Bere espedizioak kontatu ditu dokumental batzuen bitartez, festibal askotatik bidaiatu dutenak. Komunikabideentzako konferenziak eta presentazioak egiten ditu espainiako lurralde osoan.

ZUZENDARIAREN GUTUN

ANWAR bidaiatu egiten gaituen historio bat da, pentsatu egiten gaitu, emozionatzen gaitu. Elkarri lotuta dauden bideetatik bidai bat da, indarrak batzen diren eskoletan, bidean geratzen diren lagunak, kultur trukea, etxetik alde egitea erabakitzen duten pertsonak, zerbait alda daitekeela eta beste mundu bat posible dela uste dutelako.

Dokumentalak energia gehien behar den lekuetara eramaten gaitu. Bonbilla bat piztea bezain keinu simple bat posible ez den lekuak erakusten dizkigu; gauzez ez dago liburu bat irakurtzeko aukerarik, edo emakume batek ilunpetan erditzen du. Energiarako sarbide faltagatik hezkuntza, enplegua, osasuna, higiena edo kulturarako aukera gutxiago dituzten komunitateak erakusten gaitu.

Alex Txikon bera nahiko pertsonaia da, kontatzen duenagatik, nola kontatzen duenagatik, bere bizipenengatik eta etengabeko ezinegonagatik. Alex Txikonek orain arte egindakoaren bestelako dokumental bat egin nahi izan dugu. Ez da abenturazko dokumentala, nahiz eta tonu epikoa izan, mendiko istorioen ezaugarririk garrantzitsuena. Izan ere, Alex goitik behera jaitsi dugu. Leku bakoitzean harritu eta historian aurrera egin duten pertsonak eta istorioak aurkitu ditu.

Bere aldetik, zuzendariak filma honela definitzen du: “bidaiarazten gaituen istorio bat, pentsarazten gaituena, hunkitzen gaituena. Elkarri lotuta dauden bideetatik, indarrak batzen diren eskolak, bidean geratzen diren lagunak, kultur trukea, euren etxeak uztea erabakitzen duten pertsonak, zerbait alda daitekeela eta beste mundu bat posible dela uste dutelako”.

Rosa García Loire

ZUZENDARIAREN BIOGRAFIA

Rosa Garcia Loire, ANWAReko (argiz betea) zuzendaria, “601 Producciones audiovisuales S.L” produkzio zuzendaria da aldi berean. Produktora desberdinetan bere lanpostua profesionalki eraikitzen joan da, proiektu nazionaletan eta internazionaletan parte hartzen. Ekitaldi kulturalak eta enpresarialak ekoitz ditu eta Nafarroako eta estatuko ekoizpenetan lan egin du formatu ezberdinetan. Punto de Vista, DNA, 948 Merkatua, Zinetika eta Jazzaldia taldean izan da. Lankidetzaren alorrean, UNRWako Espainiako Batzorderako proiektuen formulazioan aritu da, Nafarroan ordezkaria izanik eta Nafarroan eta Zaragozan erakusketak eta hitzaldiak antolatzeaz arduratu da. SCI Bulgaria edo World For You Russia bezalako nazioarteko erakundeekin kolaboratu du. Nafarroako Unibertsitatean Ikus entzunezko Komunikazioan eta UNEDen Zientzia Politikoetan eta Soziologian lizentziatua, irabazi-asmorik gabeko entitateen enpresen kudeaketan eta irabazi-asmorik gabeko enpresetan. Desafio 14+1: Everest sin O2, La 2-rako 10 ataletako seriea den Second Unit-en ekoizpenean parte hartu du, Pura Vida dokumentalaren ekoizpen taldean lan egin du eta EL DROGAS film luzearen ekoizle exekutiboa izan da. 2020an Espainian gehien ikusitako dokumentaletako bat.

TOKIAK

NEPAL

Manaslu munduko zortzigarren mendirik altuena da 8.156 m-rekin eta Annapurnatik 70 kilometro ekialdera dago, Mansiri Himal mendigunean, Nepal mendebalde-erdialde Himalayako zati batean dago. Manaslu 1956ko maiatzaren 9an igo zuten lehen aldiz Toshio Imanishi eta Gyalzen Norbu Japoniako espedizio batekin.

Alex Txikonek Manaslura egindako neguko igoera Newton, Sierra Leonan, eta Diamereko (Pakistan) oso eskola berezi batean argi iraunkorra ekarriko dion istorio baten hazia da.

SIERRA LEONA

Newton Sierra Leona Mendebalde Eremuko Landan dagoen hiri bat da. Hiria Freetownetik hogeita mila ekialdetik gutxi gorabehera dago eta mendebalde eremuko hirugarren hiririk jendetsuena da, Freetown eta Waterlooren ondoren. EKI Fundazioak herrialde honekin lankidetzak dihardu eskolatan eta ospitaleetan eguzki-energia sistema bat eskainiz, energia-autonomia osoa emanez eta haren mantentze-lanetarako langileak trebatuz.

PAKISTAN

Günther Mendi Eskola, Diemer haranan, bere anaia Reinhold Messner-ek Günther Messner mendizalearen oroimenez sortutako eskola da, mundu osoan Nanga Parbat oxigeno ponparik gabe igotzen lehena izan zelako eta Txikonen lagun pertsonala den mendizale aitortua.

Eskola honek harreman estua du Alex Txikonekin 2015ean eta 2016an Nanga Parbateko gailurrera igotzeko saiakeretan egindako bi egonaldiengatik.

EKOIZLEA: 601 PRODUCCIONES AUDIOVISUALES S.L

601 Producciones Audiovisuales, S. L, ikus-entzunezko proiektuak sortzen dituen enpresa bat da, Iruñean (Nafarroa) kokatua. Juan San Martín, film honen ekoizle exekutiboa eta 601eko bazkide sortzailea da. ikus-entzunezko ekoizpenaren munduan 25 urte baino gehiagoko esperientzia dauka. enpresa-komunikazio, dibulgazio, telebista eta zinema ekoizpen proiektuak zuzentzen ditu, horien artean 56 programako telesaila. Rico y Sano, Aubrey Powel-en Bull Runners of Pamplona dokumentala, RTVE La Navaja de Ockham-erako 6 ataletako seriearen ekoizpen exekutiboa eta Ainarak, 2022an estreinatuko den dokumentala.

EKI FUNDAZIOA

EKI fundazioa 2017an jaiotzen da, eguzkiaren energia amaigabeari ezker elektrizitatea sortzeko. Osasun edo hezitzaile proiektuak finantziazten dute, gobernuarekin batera edo gobernurik gabe. Proiektu bakoitzaren beharretatik asten, elektrizitatea sortzeko instalazio autonomoak diseinatzen dituzte eta beharrezko elementuak hornitzen dituzte. Ekipamenduaren instalazioa eta martxan jartzea pertsonalki gainbegiratzen dute. Instalazioen funtzionamendua urrunetik kontrolatzen dute beren bizitza erabilgarrian zehar Getxotik (Bizkaia).

EKI Fundazioak aktiboki parte hartzen du proiektu honetan ekipamenduak hornituz eta Sierra Leonan egiten den lana ezagutaraziz Alexi, non eskoletan eta ospitaleetan eguzki-energia sistema eskaintzen baitute, energia-autonomia osoa emanez eta haren mantentze-lanetarako langileak prestatuz.